

Jaiotzen kopuruak igoera apala izan du 2007ko bigarren hiruhilekoan

5.063 haur jaio ziren 2007ko bigarren hiruhilekoan eta erdia baino gehiago lehenengoak izan ziren

2007ko bigarren hiruhilekoan, Euskal AEn 5.063 haur jaio ziren, iazko aldi berean baino pittin bat gehiago, EUSTATen datuen arabera. Lurraldez lurralde, Araban 751 haur jaio ziren, Bizkaian 2.562, eta Gipuzkoan 1.750.

Ezkontzaz kanpo jaioek guztizkoaren %27,1 hartu zuten, eta bost puntu igo ziren 2006ko bigarren hiruhilekoaren aldean. Bizkaia (%29,4) izan zen Euskal AEko kopuru orokorra baino handiagoa izan zuen lurralde bakarra. Araban eta Bizkaian ehunekoak pixka bat txikiagoak dira, %26,6 eta %24 hurrenez hurren.

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, 2007ko bigarren hiruhilekoan jaioen erdiak baino gehiago, hots, 2.862 haur, lehenengoak izan ziren; 1.818 haur (%35,9) aurretik beste bat bazen familietara iritsi ziren; eta hirugarren eta ondorengo seme-alabak %7,6ra iritsi ziren. Bizkaian (%40,2), bigarren eta ondorengo seme-alaben kopurua Euskal AEko batez bestekoa (%43,5) baino txikiagoa izan zen, eta hori herrialde horretan baino ez zen gertatu. Aitzitik, Araban eta Gipuzkoan ehuneko hori gaintitu egin zen, %44,6ko eta %47,8ko ehunekoak izan baitzituzten, hurrez hurren.

Lau jaiotzatatik hirutan amak 30 urte baino gehiago izan zituen


Jaiotzak amaren adinaren arabera banatuz gero, oraindik ere nagusi da 30-34 urteko amen taldea. Beraiek izan ziren, bigarren hiruhilekoan ere erditu zirenen ia erdiak. Ondoren, goragoko taldea dago, hau da, 35-39 urte artekoa (%26,1) eta 25-29ko taldea beherago geratu da, erditzeen %17,5 ekarri baititu. Muturreko adinak dituzten taldeetan, 25 urtez behera amatu zirenak %6 izan ziren, eta 40 urtez gorakoen taldeak, berriz, jaiotzen %4,5 besterik ez zuen ekarri.

Talde horren erditze-adina haurrak eduki zituzten amen multzo osoarena baino txikiagoa izan zen, ama ezkongabeen %15,7 25 urtetik beherakoak baitziren, eta 25-29 urteen artekoak %22,7.

1.- taula: Bizirik jaioak Euskal AEn. Taula konparatiboa.

	2007ko 2. hiruhil.		Aurreko hiruhilekoa (2007ko 1. hiruhil.)		Aurreko urteko hiruh. bera (2006ko 2. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	5.063	100,0	4.878	100,0	5.009	100,0
Araba	751	14,8	709	14,5	737	14,7
Bizkaia	2.562	50,6	2.472	50,7	2.542	50,7
Gipuzkoa	1.750	34,6	1.697	34,8	1.730	34,5
Amaren adinaren arabera						
<= 24 urte	304	6,0	303	6,2	292	5,8
25 - 29 urte	884	17,5	823	16,9	893	17,8
30 - 34 urte	2.329	46,0	2.182	44,7	2.335	46,6
35 - 39 urte	1.319	26,1	1.326	27,2	1.293	25,8
>= 40 urte	227	4,5	244	5,0	196	3,9
Amaren egoera zibilaren arabera						
Ezkondua	3.690	72,9	3.579	73,4	3.885	77,6
Ezkongabea	1.373	27,1	1.299	26,6	1.124	22,4
Jaiotza-hurrenkera						
Lehenengoa	2.862	56,5	2.786	57,1	2.783	55,6
Bigarrena	1.818	35,9	1.749	35,9	1.875	37,4
Hirugarrena edo gehiago	383	7,6	343	7,0	351	7,0

1. grafikoa: Jaiotzen hilez hileko mugimendua.



Oinarria 100 =b.b. Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tlf:+34-945-01 75 49 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: [+www.eustat.es](http://www.eustat.es)